



IRIBAS
IRIBAS

IRIBAS (LARRAUN)

Juan Migel Zubieta

Nik neonek Juan Miel dot izena, Juan Miel Zubieta Jaunarena, ta etxiik edo Juainii, bai.

Bai sunpriñu hoi, ni juxtu-juxtuan akordatzen naiz, nola sunpriñu izaten tzen, hoi, urritzei azalak kendu, da eitten zuin izardin denboan, ta geo sekatota de, euki..., ta jotzeko eukitzen zuila baño, nik oso gutxi besteik eztaket, horren... zea sunpriñu horren kontu hoi. Ne atte zenak bai, hemen famatun zuna eo, gehien zuna, arte gehiena zuna, hue emen zen, onge jotzen tzula esaten tzuin, baño nik ne atte zena ez nun ezautu, ni zazpi hillaete nittula hil tzen, da... «osea», ez nun nik ne atte zenik ezautu.

Ta geo hemen, herrin eitten tzena geo, akordatzen naiz motil koxkorra nitzela, nola izaten zen sunpriñu, baño, hola jotzeko... hola kanzioak, doiñuak onge zeatzeko modun da, hainbextetaaiño ez. Geo beandu, beandu, hola galdezkan etorre zen batentzat, hemen gue maixterran... batek..., hue de hil zen, ta harrek gehinak eman zittin, ta geo, halako zerbait prestatu zuin, baño hortik aurrea gauz handiik...

Eta, doñuak emateko modun, hoi, hoi, nik ez dut gogoan kasik... Nola eitten zuila bai, ta, baño... zeai ez, «o sea», hemen jozaleik etzen artekoik, kasik eitten bazekin baño jotzen etzen hanbextetaaiño, «o sea» etzuin dominatzen zeai, doñuak edo, honbestetaaiño ni enaiz akordatzen beñipeñ, jo ta tatururu, tururu, baño beti bat. Baño oaiñ bat eta geo beste ta hola, ez.

– Dena, era guztietara hori hemen, Iribasko kontu bat da, aldameneko herrietan ez da ezagutu holakorik?

– Nik eztait, nola urdun etzen oaiñ bezala herritatik jendea ateatzen, ta guk e motil koxkorra denboan beste herritan ze pasten zen asko, asko... eztezaket esan, baño nik uste ot hemen eitten zenen inguruko herritan e eitten izain zela, nik eztaket hoi.

– Eta noiz jotzen zen, festa zenean edo eztakit, eguneroko lanak bukatutakoan edota...?

– Beste gauza, nik uste ot jotzen tzuila, ne atte zenak eukitzen emen zun

hoi prestatota gordii, Erregetan eo... Urteberri, Errege eo... Errege jaiek, baakizu, ordueko eoketzen ote zuin. Baño hori de seguro, eztaikit, jakiñe, gauzok... Hoi jakiñe, ordun norbeak e, itten zittuinak franko, asko izain zela iruitzen zait, asko eo, bai, bai, izain tzen, baño ya gu, gue denboako, zea, gue maizterran hoi ta holako ezagun bat eo beste...

Hoi izaten zen gañea, azal hoi... billatu behar zuin makille eoke xamarra, luze xamarra, da zeak, arrastoak eitten zittuin da, hoi izaten tzen... nola izaten dee paxak elurreako ta pantorrilloak biltzeko, bendak esaten giñin, zea, halako gauze at zen azal hoi, ta dena markatzen tzuin, bihur in, bihur in da, geo, biltzen zen, ta hoi izaten zen sunpriñu. Oain guk geo beste txistu zea hoik lizarraakin, lizarraakin eitten giñuzen, hoik geok eitten giñun, jakiñe, zea izardiko denboan, moztu lizar adarra, hola mei xamarra, da kendu, zeatu, ebaki ein labanaakin, kaxka, kaxka, kaxka jo ta, geo izardi hoi saltatzen tzen ba, da orduan eursi, eursi ein da, plust!, makillen ateatzen da, osoan ateatzen da, txistu hoik eitten ni neonek e ein ttot franko hoitakoak, hola, txistu ttikik.

– Eta gero horri doinua ematen diozue, horri?

– Ez, ez, horrek etzun beste... hoik etzuin bestetaako balio zearako, hola txui!, ezpañekin jotzen baita, ezpañekin doñu ta jotzen dee txistuk, zean, baño ez, horrek etzun ... fiit!, hoi eitteko bakarra balio izaten zuin guk eitten giñuzen ttiki hoik. Eitten giñun, hoi, motikoak eitten giñun primaeran zeatzeko, elkarrekin, eskolako denboan, eskolatik atea ta eitten giñuzen zeak izaten zeen hoik. Baño sunpriñuk, zea bestelako hue, haundii zen, haundiik izaten tzeen. Ez, hoi, txistu hoi difeenti da, jakiñe.

Ingurutxo, beiziozu, horrei esaten tzuin «el Ingurutxo de Iribas» zea izena, baño, baakizu hoi zeingatik emen den?, «o sea», zea, ingurutxoan dantzo atzeatzen hasi zeniin, hoi emen zen dantza denetan, hemen Larraunen, da Basaburun da nonnahi dantzatzen zen dantza, ta Leitzen e bai eta, leku guzietan dantzatzen zen dantza, baño, hasi emen zen hoi atzeatzen, atzeatzen, da herri guzik utzi zuin dantz hoi, da hemen konserbatu eitten zen, da jarri emen zuin izengoitti bezala «Iribesko Ingurutxo», baño ez prezisamente hemengoa zelako, baizik herri guzitakoa, baño beste guzietan utzi eta goandekoan hemen seitzen zelako.

– Eta hori jotzen zekiena zein zen, hemen bertako txistularia edo?

– Ez, ez, txistulariik etzen hemen, honea beti gu, gue denboan, mutil kozkor denboa guzin da... zeara, beti bat etortzen zen, Zubietakoa, Xalbador zun, Xalbador Mutuberria zun izena, ta bea ta bee seme, bee seme geo han eoketzen tzen, baño etzen aitzen, zeatzen, beti attek jotzen zun. Ta hoi zeen familie txistularik, bee lengusu ta gehigo de bazen herritaa ta asko zeatzen zeenak, ba, hua etortzen zen, hemen Sanjuanetan izaten zeen pestak ordun, ta iguala Allin, San Juan y Pelayo esaten... ta iguala, gero San Pedro, hiru herrik ta iguala. Pentsa zazu garai hoitan Zubietatik honea oñez etorri eta

hiru... harrapatzen zittun herrik, da herri askotan ibiltzen zen txistularia zen hoi.

– Eta dantza, ordea, Ingurutxo egiten e, hemen denek jakingo zuten, berdin gizonezko, emakumezko...

– Bai, denak baizekiin, ya gue denboakun, gue denboan... «o sea», ni beño hamar bat urte zarragoak, hoi dantzatzan ongi zekiin, baño ya gu gue denboako, gerra de etorri zen da... askoz ee... etzen dantzatzan ya. Geo hasi zeen beis hoi berritzen bezala, da hemen berritu zuin, hok, gazte hok dantzatu duin zea hoi, zean horrek, maxterraan hoi... hoi ongi zekina zen, dantzari zen beres da, holako gauz hotakoak... gogoatsu, ta zea, horrek eakutsi ta dantzatzan zuin... geo beis utzi zittin da akabo, hemen Sanjuanetan bakarrik... pestetan ez baitzen soñu jotzaleik eguneo etortzen, herriko pestetan, ta pestetatik pestetaa.

Bai soiñu... txistulari horrek akordeon txikii izaten zun ta geo bee semeak e pianola hortakoa de sortu zun (?), ya, akordeon pianolak esaten zuin, da, izaten tzen hasieran txistukin eitten zen Ingurutxo hoi ta beste hiru eo lau dantzaldi eo zea, ta geo akordeona illunaarreako.

– Politak, orain gogoratzen jarri eta garai hartako festak hola gogoramen politak eta...

– Nee ilusioa... nola aitzen baizen beandutik beandue ta etzen soñuk eta goain bezala, oain badakizu, radioa dela ta ez delaik geos, bazter guzitatik soiñua etxiin dao kasik. Ordun pestakoan adiñe... ta... hainbeste esker irui do etzaiola ematen, gu bezalakoak beñipeñ, baño orduan herrietan baakizu... «Xalbador etorri ok!», pesta bezpean da, ilunaarren etortzen zeniin, ta hurreneko zean herrin buelta ematen zun, bazekin ongi bai, urte askuan etorri izaten baizen da.

– Festak orduan oraingoekin konparatuz, konparatzen hasi ta.. rekuerdo onak...

– Gui iruitzen zaiu alaiagoak bezala, jakiñe, gazte giñen urdun da! Baño, oaingo gaztek ee, oaingo gaztek oaingoak iruittuko zazkik alaienak, been... bakotxai bee denboako garaie iruittuko zaio.

IRIBAS (LARRAUN)

Juan Migel Zubieta

Nik neronek Juan Migel dut izena, Juan Migel Zubieta Jaunarena, ta etxeak edo Juanenea, bai.

Bai, sunpriñu hori, ni justu-justuan akordatzen naiz nola sunpriñua ¹ izaten zen, hori, urritzei azalak kendu, eta egiten zuten izerdiaren ² denboran, eta gero sikatuta ere, eduki..., eta jotzeko edukitzen zutela baina, nik oso gutxi besterik ez dakit, horren... zera, sunpriñu horren kontu hori. Nere aita zenak bai, hemen famatuen zuena edo, gehien zuena, arte gehiena zuena, hura omen zen, ongi jotzen zuela esaten zuten, baina nik nere aita zena ez nuen ezagutu, ni(k) zazpi hilabete nituela hil zen, eta... «o sea», ez nuen nik nere aita zenik ezagutu.

Eta gero hemen, herrian egiten zena gero, akordatzen naiz mutil koskorra nintzela nola izaten zen sunpriñua, baina hola jotzeko... hola kantzioak, doinuak ongi zeratzeko moduan eta hainbestetaraino ez. Gero berandu, berandu, horrela galdezkan etorri zen batentzat, hemen gure maizterraren... batek..., hura ere hil zen, eta hark gehienak eman zizkion, eta gero halako zerbait prestatu zuten, baina hortik aurrera gauza handirik...

Eta, doñuak emateko moduan, hori, hori, nik ez dut gogoan kasik... Nola egiten zutela bai, eta, baina zerarik ez, «o sea», hemen jotzalerik ez zen artekorik, kasik egiten bazekiten baina jotzen ez zen hainbestetaraino, «o sea», ez zuten dominatzen zerarik, doinuak edo, horrenbestetaraino ni ez naiz akordatzen behinik behin, jo eta tatururu, tururu, baina beti bat. Baina orain bat eta gero beste eta hola, ez.

– Dena, era guztietara hori hemen, Iribasko kontu bat da, aldameneko herrietan ez da ezagutu holakorik?

– Nik ez dakit, nola orduan ez zen orain bezala herrietatik jendea ateratzen, eta guk ere mutil koskor denboran beste herrietan zer pasatzen zen asko... asko ez dezaket esan, baina nik uste dut hemen egiten zenean inguruko herrietan ere egiten izanen zela, nik ez dakit hori.

– Eta noiz jotzen zen, festa zenean edo ez dakit, eguneroko lanak bukatutakoan edota...?

– Beste gauza, nik uste dut jotzen zutela, nere aita zenak edukitzen omen

(1) Artzaiek erabiltzen zuten musika-tresna, hemengo gaitaren tankerakoa eta urritzaren azalaz egiten zena.

(2) Izerdia: arbolaren bizi-zukua.

zuen hori prestatuta gordea, Erregetan edo... Urteberri, Errege edo... Errege jaiak, badakizu, ordurako egokitzen ote zuten. Baina hori ere seguro ez dakit, jakina, gauzok... Hori jakina, orduan norberak ere, egiten zituztenak franko, asko izanen zela iruditzen zait, asko edo, bai, bai, izanen zen, baina jadanik gu, gure denborako, zera, gure maizterraren hori eta holako ezagun bat edo beste...

Hori izaten zen gainera, azal hori... bilatu behar zuten makila egoki samarra, luze samarra, eta zerak, arrastoak egiten zituzten, eta hori izaten zen... nola izaten dira paxak elurrerako eta pantorriiloak biltzeko, bendak esaten genien, zera, halako gauza bat zen azal hori, eta dena markatzen zuten, bihur egin, bihur egin eta gero biltzen zen, eta hori izaten zen sunpriñua. Orain guk gero beste txistu zera horiek, lizarrarekin, lizarrarekin egiten genituen, horiek gerok egiten genuen (sic), jakina, zera, izerdiko denboran, moztu lizar adarra, horrela mehe samarrak, eta kendu, zeratu, ebakia egin labanarekin, kaxka, kaxka, kaxka jo eta, gero izerdi hori saltatzen zen ba, eta orduan igurtzi, igurtzi egin eta, plust!, makilan ateratzen da, osoan ateratzen da, txistu horiek egiten ni neronek ere egin ditut franko horietakoak, horrela, txistu ttikiak.

– Eta gero horri doinua ematen diozue, horri?

– Ez, ez, horrek ez zuen beste... horiek ez zuten bestetako balio, zerarako, honela, txui!, ezpaineekin jotzen baita, ezpaineekin doinu eta jotzen dira txistuak, zeran, baina ez, horrek ez zuen... fiit!, hori egiteko bakarra balio izaten zuten guk egiten genituen ttiki horiek. Egiten genuen, hori, mutikoak egiten genuen primaberan zeratzeko, elkarrekin eskolako denboran, eskolatik atera eta egiten genituen zerak izaten ziren horiek. Baina sunpriñuak, zera, bestelako hura, handiagoa zen, handiagoak izaten ziren. Ez, hori, txistu hori diferentea da, jakina.

Ingurutxoa, begira iezaiozu, horri esaten zioten «el Ingurutxo de Iribas», zera, izena, baina badakizu hori zerengatik omen den?, «o sea», zera, Ingurutxoaren dantza hori atzeratzen hasi zenean, hori omen zen dantza denetan, hemen Larraunen eta Basaburuan eta nonnahi dantzatzen zen dantza, eta Leitzan ere bai, eta leku guztietan dantzatzen zen dantza, baina hasi omen zen hori atzeratzen, atzeratzen, eta herri guziek utzi zuten dantza hori, eta hemen kontserbatu egiten zen, eta jarri omen zuten izengoiti bezala «Iribasko Ingurutxoa», baina ez prezisamente hemengoa zelako, baizik herri guzietakoa, baina beste guzietan utzi eta oraindik hemen segitzen zelako.

– Eta hori jotzen zekiena zein zen, hemen bertako txistularia edo?

– Ez, ez, txistularirik ez zen hemen, honera beti gu, gure denboran, mutil kozkor denbora guzian eta... zerara, beti bat etortzen zen, Zubietakoa, Xalbador zuen, Xalbador Mutuberria zuen izena, eta bera eta bere seme, bere semea gero han egokitzen zen, baina ez zen aritzen, zeratzen, beti aitak jotzen zuen. Eta horiek ziren familia txistulariak, bere lehengusua eta gehiago ere bazen herrietara eta asko zeratzen zirenak, ba, hura etortzen zen, hemen Sanjuanetan izaten ziren festak orduan, eta iguala Allin, San Juan y Pelayo esaten... eta iguala, gero San Pedro, hiru herriek eta iguala. Pentsa ezazu

garai horietan Zubietatik honera oinez etorri eta hiru... harrapatzen zituen herriak, eta herri askotan ibiltzen zen txistularia zen hori.

– Eta dantza, ordea, Ingurutxo egiten e, hemen denek jakingo zuten, berdin gizonezko, emakumezko...

– Bai, denek baitzekiten, jadanik gure denborakoan, gure denboran, «o sea», ni baino hamar bat urte zaharragoek, hori dantzatzeko ongi zekiten, baina jada gu gure denborako, gerra ere etorri zen eta, askoz ere... ez zen dantzatzeko jada. Gero hasi ziren berriz hori berritzen bezala, eta hemen berriro zuten, horiek, gazte horiek dantzatu dute zera hori, zeran horrek, maizterren hori... hori ongi zekiena zen, dantzaria zen berez eta, horrelako gauza horietakoak... gogoatsu, eta zera, horrek erakutsi eta dantzatzeko zuten... gero berriz utzi zioten eta akabo, hemen Sanjuanetan bakarrik... festetan ez baitzen soinu jotzalerik egunero etortzen, herriko festetan, eta festetatik festetara.

Bai, soinu... txistulari horrek akordeon txikia izaten zuen, eta gero bere semeak ere pianola horietakoa ere sortu zuen, jadanik, akordeon pianolak esaten zuten, eta izaten zen hasieran txistuekin egiten zen Ingurutxo hori eta beste hiru edo lau dantzaldi edo zera, eta gero akordeona ilunabarrerako.

– Politik, orain gogoratzen jarri eta garai hartako festak horrela gogoramen politik eta...

– Nere ilusioa... nola aritzen baitzen berandutik berandura eta ez zen soinurik eta orain bezala, orain badakizu radioa dela eta ez delarik geroz, bazter guzietatik soinua etxean dago kasik. Orduan festakoan adina... hainbeste esker iduri du ez zaiola ematen, gu bezalakoek behinik behin... Baina orduan herrietan badakizu... «Xalbador etorri duk!», festa bezperan eta ilunabarrean etortzen zenean. Eta hurreneko, zerean, herrian buelta ematen zuen, bazekien ongi bai, urte askoan etorri izaten baitzen eta...

– Festak orduan oraingoekin konparatuz, konparatzen hasita... rekuerto onak...

– Guri iruditzen zaigu alaiagoak bezala, jakina, gazte ginen orduan eta! Baina oraingo gazteak e, oraingo gazteak, oraingoak irudituko zaizkie alaiena, beren... bakoitzari bere denborako garaia irudituko zaio.